

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko maiatzaren 11n • 190. zka.



**Lorategiak,
herriko aurpegi biziak**

LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabalak:

Batxilergo Teknologikoa, **Eskola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.



Arizmendi


Larrin Plaza, 1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

Herrian lorategi nahikoa daudela uste duzu? Eta zer iritzi duzu txakurren kaken inguruan?



Birginia Armentia

Bai, nik uste dut nahikoa daudela. Ondo zainduta daude nire iritziak. Lorategiak txakur kakez josita daude. Udalak banda jarri zuen, eta zeozer igarri dela uste dut.




Juanita Sanchez

Lorategi gehiago egon beharko lirake. Daude ondo zainduta daude. Txakurrek lorategian kaka egitea debekatu egin beharko lukete.



Bixente Etxeandia

Lorategiak badaude, baina gero eta gehiago hobeto. Lorategiak zaintzen dituen enpresak lan ona egiten du. Txakurren jabeek jaso egin beharko lukete kaka.



Deunoro Bengoa

Lorategi asko dago herrian. Herri guztia jardina da eta ondo zainduta daudela uste dut. Txakur kaken arazoari, bestalde, Udalak ez dio heldu behar bezala.

ESKUTITZA



ABERRI EGUNA 2000/04/23

Aberri eguna taldekoek eskerrak eman nahi dizkiete Aberri eguneko deialdi bateratuan parte hartu zuten guztiei, batez ere, musika eskolako trikitilariei, Loramendi dantza taldeko bi dantzariak eta txistulariari.

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Polita izan zen ideologia desberdinetako atxabaltarrok ikurrinari omenaldia egin eta gero denok batera abesti eta giro ederrean, Matikuan bazkaltzea.

Datorren urteari begira, hobeto egiten saiatuko gara, Aberri Eguna, egun garrantzitsua delako, herriz herri eta denok batera eraikiko baitugu gure Euskal Herri hau.

Atxabaltako Aberri eguna taldea



PRESOEN ESKUBI- DEEN ALDE, EUSKAL HERRIAREN HITZA- REN DEFENTZAN

Dagoeneko jakingo duzen be-

zala, euskal preso politikoak, gose greba mugagabeen daude. Kolektiboaren eskabideak hauek dira:

1.- Euskal preso guztiak KALEAN izatea, EUSKAL NAZIO ERAIKUNTZAN euskal gizarte osoarekin batera prozesu honetan parte hartzeko eskubidea dutelako.
2.- Giza ESKUBIDEAK ERRESPEKTATUAK izatea. Sakabanaketaz amaitzea, preso politikoaren estatua aplikatzea, gaixorik dauden eta baldintzapeko askatasunaren epeak beteta dituzten burkideen kaleratzea, entrega eta estradizioen amaitzea eta Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea.

Askatasunik gabe egoteaz gain, gose greba horrekin presoek beraien osasunean ondorio larriak jasaten dituzte.

Guk bitartean bizitza eroso bat daramagu kalean, baina herri honen eraikuntzarako geuk ere borrokatzea ezinbestekoa da, Euskal Herriak pairatzen duen

zapalkuntzaz amaitzeko.

Ez ahaztu, asteburuero plataformak deituta gose greba herrikoia burutzen dela eta guztion inplikazioa beharrezkoa dela poliki-poliki gatazka politikoa konpontzeko.

Bukatzeko, gure elkartasunik beroena gose greban dauden euskal preso politiko guztiei eta batez ere, Kepa Urria atxabaltarrari. Gogoratu Kepa Alcalá Mecon dagoela eta zuen eskutitzak eskertuko dituela. Honako hau da bere helbidea:

Kepa Urria Guridi/CP Madrid II/
Carretera de Meco Km 5/28800
Alcalá de Henares/(Madrid)

Beraien legeak bete ditzatela orain! Euskal preso eta errefuxiatuak etxera!

AAAK

Aretxagazeta

190. zenbakia
2000ko maiatzaren 11n.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.
Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Nerea Lete, Aiora Filarmendi.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.
Azala eta barruko argazkiak: Aberri eguna 1932 liburutik hartuta.



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Gose greba herrikoia egiten ari da astebukaeretan

Apirilaren 29an Kepa Urra preso atxabaltarrak gose grebari ekin zion. Poliki-poliki euskal preso guztiak ari dira gose greba egiten euren egoera salatzeko eta oraingoan Kepak hartu du txanda. Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak ere Kepari bere babesa eta atxiki-mendua adierazi guran gose greba herrikoia antolatu du astebukaeretan. Kepa hasi zen astebukaeretan bertan, eman zioten hasiera ekimen honi eta zortzi lagun egon ziren zapatu goizetik astelehen goiza bitartean.

Kepak gose greban irauten duen tartean astebukaera guztietan egingo da gose greba herrikoia hau udaletxeko ganbaran. Joan den astean esaterako, hamabi lagun egon ziren

egukotx arratsaldetik domeka ilunkarara eta hurrengoan ere beste horrenbeste egotea espero da. Plataformak antolatutako ekintza honetan parte hartu gura duenak Arlutz edo Urbaltz tabernan izena eman besterik ez du egin behar.

Alcalara joateko autobusa

Datorren zapaturako bestalde, Aretxabaletako plataformak, Alcalá Mecoera joateko autobusa antolatu du. Zapatu goizaldean, hirurak aldera, urten eta goizeko bederatzietarako Madrilan egotea gura da. Keparen familiak bisabisa duen bitartean gainontzekoek kanpotik, txalaparta bidez, elkartasuna adieraziko diote preso atxabaltarrari eta bertako euskal preso guztiei.



Apirilaren 29an hasita gose greban dagoen Kepa Urrarekin bat egin gura da gose greba herrikoia honekin

Debagoieneko komunikazio enpresa batek **ZUZENDARI KOMERTZIALA** behar du

Enpresaren diru sarreren ardura osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketaarako gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE



URTEURRENA

1999-5-13

Maria Pagaldai Iñurrategi

Lehen urteurreneko meza domekan maiatzaren 14an, goizeko 12etan Andra Mari Zeruratze Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi alde aurretik eskerrik asko sendikoen partetik

Euskararen eguna eta Otala Zelaiko erromeria

Urtero legez, maiatzean euskararen eguna eta Otala Zelaiko erromeria etorriko dira. Aurten normalean

baino beranduxeago, maiatzeko hirugarren astebukeraren hain zuzen, baina beti bezala ekintzez gainezka.

maiatzaren 19a eguakotxa

Arratsaldeko 8,30etan

Trikitixa eta perkusioko bikotea udaletxe zaharrean

Euskararen eguna

maiatzaren 20a zapatua

Goizeko 12etan

Kanpai jotzea

Goizeko 12,30ean

Txalapartariak

Eguerdiko ordu 1ean

Gaztai eta sagardo dastaketa

Eguerdiko ordu 1ean

Lizaso eta Egaña bertsolariak

Eguerdiko ordu 1,30ean

Leizarra musika eskolako

Eguerdiko ordu 2,30ean

trikitolariak kaleetan zehar

Arratsaldeko 5etan

Bazkari herrikoia

Arratsaldeko 6,30ean

Durana kalean

Arratsaldeko 7etan

Aldibereko xake partidak

Arratsaldeko 7,30ean

Loramendi dantza taldearen ekitaldia

Gaueko 10,30etik aurrera

Larrain dantza Mitarte kalean

Emakumeendako VI. bolo txapelketa

Ene Bada taldearekin dantzaldia Mitarte kalean



Otala Zelai eguna

maiatzaren 21a domeka

Goizeko 10etan

Txistulariekin diana

Goizeko 11etatik

arratsaldeko 5ak arte

Haurrentzako gaztelu puzgarriak

Eguerdiko 12etatik

ordu 1era

Eguerdiko ordu 1ean

Animaliekin jokuak
Entsalada txapelketa
Antolatzaileek letxuga, tomatea, kipula, gatza, ozipina eta olio jarriko dituzte eta gainontzeko osagaiak partehartzailerik.

Eguerdiko ordu 1etik

ordu 2etara

Leizarra musika eskolako trikitolariarekin dantzaldia

Arratsaldeko ordu 2etan

Bazkari herrikoia

Antolatzaileek mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta bazkaria norberak eraman beharko du. Lehenengo platera entsalada izango da.

Arratsaldeko 3,30ean

Rokodromoa, tirolina, tailerrak eta jokuak


(hankapalu, graffiti, makilaje eta txapak egiteko tailerrak eta sokatira, txokor batzea, saku karrera eta hankapalu lasterketa)

Arratsaldeko 5etan

Sokatira txapelketako finala

Arratsaldeko 6etan

Loramendi dantza taldearen eskutik dantza saioa eta ondoren musika



**ANDRA
MARI**


Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Jauregi Okindegia

Otatora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta



• Pannila espezialitateak

GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABAleta ☎ 943 79 68 57

■ ARKARAZOKO ELIZA INAUGURATU DA Joan den zapatuan, hilak 6, Arkarazoko San Millixan parrokia inauguratu zen. Meza eta luntxa izan ziren auzotar eta bertara hurreratutako guztientzat. Gabonak inguruan hasitako konponketa lanak bukatutzat eman dira horrela. Zorua zen konpondu behar haundiena zuena, erabat ustelduta baitzegoen, eta egurraren ordezkari baldosa jarri da hezetasunari aurre egiteko. Honekin batera aldare ingurua ere txukundu da.

Hurrengo berriztuko den eliza Larrinokoa da, bertako teilatua konponketa premia larrian dago eta. Frontoia eta teilatua izango dira konponduko diren bakarrak.

Goienan sartu da Loramendi elkarte

Loramendik eta Aretxabale-tako komunikabideak-Loramendi elkarteak apirilaren 18an egindako batzarretan, bazkideek baietza eman zioten Goiena kooperatiban sartzeari. Kooperatiba elkarte horretan Loramendi sartzeari onartu zen, baina

hiru ordezkariak bi AKLrenak izango dira. Atxabalta telebistako ekipamendua Goienari uztea ere adostu zen. Joan den eguakotxean, gainera, Atxabalta telebistari agur esan genion, maiatzaren 22an Goitb helduko delako gure etxeetara.



ASTELEHENETAKO AZOKA BELORRIETA KALERA PASATUKO DA

Astelehen goizetan Gernika plazan egiten den azoka maiatzaren 22tik aurrera Belorrieta kalean egingo da. Gernika plazan leku gutxi egotean nahaspila haundia sortzen da, batez ere trafikoa dela eta, beraz, Belorrietara pasatzean, azokak, espazio aldetik eta segurtasun aldetik irabazi egingo luke. Horrela bada, astelehen goizetan, azokak iraun bitartean, Belorrieta kalea itxi eta trafikoa Araba Ibilbidetik bideratuko da. Gernika plaza, bestalde, eraberritu egin gura da bizitasun haundiagoa emateko eta horretarako 16 milioi onartu dira.

LAPURRETAK IZAN DIRA HAINBAT BASERRITAN

Arkarazoko abadetxean eta Izurietako Ugaldetarren baserrian lapurrak sartu ziren pazko asteko asteburua. Arkarazoko baserrian etxeke gela batzuk hankaz gora utzi zituzten. Ugaldeneatik, barriz, hainbat bitxi eraman zuten. Marzelino Ugalde etxeke nagusiak iparraldeko matrikuladun kotxean etortitako bikote bat ikusi zuen etxe inguruan, baina ez zuen lapurrak izan zitezkeenik pentsatu ere egin.

Festa giroan ospatu zen aberri eguna

Aretxabaletan antolatutako aberri egun bateratuak zapore goxoa utzi zuen. Ikurriñari agurra izan zen ekitaldi nagusia eta ondoren udalbiltzak ateratako komunikatua irakurri zuen alkateak. Lehenengo aberri egun honi bukaera emateko, bazkaria egin zuten 25 bat lagunek Matikun.



GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



HIRUGARREN MUNDUA EZAGUTZEKO ERAKUSKETA ANTOLATUKO DA

“Sar zaitetz mentura zoragarri honetara” izeneko erakusketa antolatuko dute parrokiako sendotzako taldeek eta Hiruatx taldeak. Hirugarren munduko herrialdeetan nola bizi diren erakutsi gura da eta batez ere ume eta gazte-txoei zuzenduta dago. Erakusketak hiru helburu izango lituzke: herri eta kultura ezberdinen bidez ikuslea beste errealitate batzuren jabe egin, kontakizun eta lekukotasunen bidez parte hartzailea ohi-turen erlatibitatearen aurrean ezarri eta emakumearen eta gizonaren bizi ikuspuntuak aurrez aurre egiaztatu. Maiatzaren 16tik 26ra bitartean Pagaldai taberna egon zen tokian egongo da erakusketa, astelehenetik eguakotxera arratsaldez eta zapatu domekan goiz eta arratsalde.



3-6 urteetarako ikastola proiektua eraiki gura du Arizmendi Aretxabaletan

Santa Rita ikastetxeak hitzarmena sinatu du Almenekin

Agustindar mojek zuzendutako Santa Rita ikastetxeak hitzarmena sinatu du Arizmendi kooperatibako Almen ikastolarekin. Hitzarmen horren bitartez, 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat ikastola proiektua eraikitzea da helburua. Hiru urteren buruan, moja gehientsuenak erretiratuta egongo direla ikusita, ikastola eraikita gotea espero

da. Santa Rita eta Almen jadanik hasita daude elkarlanean eta datorren ikasturtera begira hainbat aldaketa etorriko dira: gurasoen heziketa, aisialdirako proiektuak...

Arizmendi kooperatibak 0-6 urteetarako gauzatu gura duen Lehenhitz proiektu barruan sartuko litzateke Pausokakin batera Santa Rita ikastetxea ere.



MURRUKIXOK ERREKAKO URA AZTERTUKO DU

Deba erreka-ko ura aztertuko du Murrukixo mendizale elkarteak. Hiruerreketatik, Deba erreka-ko iturburutik hasi eta Leintz Gatzagarainoko tartean arduratuko da eta laginak hartu eta pHa, nitratoak eta beste hainbat ezaugarri begiratu ditzkiote urari. Azterketa hau egiten lagundu gura duen edonor maiatzaren 21ean goizeko 9etan Herriko plazara etor dadila, bertatik abiatuko baita Leintz Gatzagara. Bazkaltzeko, barritz, etxera itzultzeko asmoa dago.

UDALEKU IREKIETARAKO MONITOREAK BEHAR DIRA

Urtero legez, udaleko kultura sailak udaleku irekiak antolatuko ditu uztailen. Umeekin ibiltzeko, ordea, monitoreen beharra dago. Baldintza bakarrak 16 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea izango dira. Interesatuak Loramendi, Ludoteka edo Kultur etxera jo dezakete izena emateko.

Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jou Diaz

Karakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Euskaldunok ez al dugu eskubiderik?

Notarioak

Aseguruak

Osasuna

Kredituak

Lan kontratuak

Epaitegiak

Etxebizitza kontratuak

Kredituak

... eta beste batzuk noizko euskaraz?



ikazoka 00

merkatu
plazan

hezkuntza eta
berrikuntza **azoka**

Maiatzaren
18tik 21era

DURANGO

..... ordutegia: ostegunetik larunbatera 10:00etatik 14:00etara 16:00etatik 20:00etara

iganda: 10:00etatik 14:00etara

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

AREANO
nekazalturismo etxea

- Alojamentua
- Jangela zerbitzua
- Harrera hizkuntza desberdinetan
- Ikastaroak emateko tokia

Mendiola auzoa Tel.: 943 71 44 70
ESKORIATZA (sarrera Aretxabaletatik)

Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

Maiatzak 20 eta 21

FERRITUR

DEBAGOIENENKO I. TURISMO AZOKA

ARRASATE UARCAPE *Frontoia*

ORDUTEGIA 10:00 - 15:00 / 16:30 - 21:00

Sarrera Dohain



BIDAIEN ZOZKETA

Antolatzailea

Laguntzailea


OCL 37-03
HALCON
BIDAIK

DEBAGOIENENKO
MANKOMUNITATEA





Eperako aurrezkian lasaitasuna ematen dizugu

Errentagarritasun eta
erabilgarritasun handia




Lasaitasunez
arnasten uzten
dizun inbertsioa

**Errentagarritasun
handia eta gastu eta
komisiorik gabe
erabiltzeko aukera**

Aurrezki Zabalak lasaitasuna ematen dizu baretasunez eta segurtasunez epe luzeagorako aurrezkoa aukeratzeko. Izan ere, Aurrezki Zabalarekin edozein ezusteko gertatuz gero aurrera egiteko diru-kopuru bat duzu, gasturik eta komisiorik gabe. Beraz, zure aurrezkiak epe luzean sar ditzakezu eta errentagarritasun handiagoaz gozatu.

Murgil zaitez
ziurtasunez
errentagarritasun
handian

*Orain hiru urte
jubilatuz bazen ere
20 urte inguru
daroa Joxek Aretxa-
baletako Parrokiako
diru kontuen
arduradun.
Auzoetako elizak
konpontzeko dirua
lortzeaz ere bera
arduratzen da,
azken urteotan,
gainera, makinatxo
bat izan dira.*



Joxe Olabe

Parrokiako diru kontuen arduraduna

■ **Jubilatu ostean zer egiten duzu?**

■ Parrokiako diru kontuen ardura neure gain dago beraz, egunera eraman behar. Auzoetako elizak konpontzeko dirua lortzen ere saiatzen naiz. Sarritan, Foru Aldundia bezalako tokietan, gogaikarria naizelako ematen dida-tela uste izaten dut.

■ **Noiztik duzu parrokiako diru kontuen ardura?**

■ Orain 20 bat urte hasi nintzen, 1980. urtean, Parrokia konpondu behar zela eta Bitorianok laguntza eskatu zidantetik. Dena dela esan diot Antoniori beste urte pare bat egongo naizela baina gehiago ez.

■ **Lan nekeza al da?**

■ Ez, lan nekeza ez, baina denbora asko kentzen duena bai, informatizatuta ere ez gaude eta. Parrokiako diru

kontuez gain bederatzi auzo-etako kontuak ere eraman eta aurkeztu behar izaten dira.

■ **Zenbat auzotako elizak konpondu dira?**

■ Bost auzotakoak, Galartza, Azatza, Izurieta, Korueta eta azkena Arkarazo. Aurretik Arientza ere eginda dago. Orain Larriñokoarekin hasi gara eta maiatza bukaera edo ekaina hasieran Gellaokoarekin hasiko gara, urte eta erdi itxita egon ostean Andra Maritarako bukatzea gura dute eta auzotarrek.

■ **Nondik lortzen da dirua?**

■ Gotzaitegitik, Foru Aldunditik eta auzotarrengandik jasotzen da. Diputazioak ordea, kanpoko konponketetarako bakarrik ematen du dirua.

■ **Nola erantzun izan dute auzotarrek?**

■ Oso ondo, dirua emateko orduan beti portatu izan dira ondo. Sarritan auzotarrak eurak dira eliza konpondu beharrean dagoela esanaz datozenak. Beraz, oraindik fededun jendea geratzen da eta nik uste, gainera, gure arbasoek utzitako historia eta arte-ondarea zaintzea tokatzen zaigula, gure ondorengoei jasotako moduan uzteko.

■ **Honekin bukatutzat eman gura duzue auzoetako elizen konponketa lanak?**

■ Bai, Larriño eta Gellaokoa konpondu ostean eliza guztiak txukun egongo dira. Mendiolakoa egin ez bada ere nahiko ondo dago. Koruetako erretaula konpondu gura genuke, Santiagoren bizia kontatzen duen Gipuzkoako bakarra da eta. Seguru asko Foru Aldundiak lagunduko

digu, 8 bat milioi izango da konponketa eta guk ezin baitugu finantziatu.

■ **Parrokiako obra noizko?**

■ Uda ostean hasteko asmoa dago. 80 milioi pezetako aurrekontua dauka eta kanpotik eta barrutik konpondu gura da. Teilatua oso egoera txarrean dago eta saloia ere ez dago batere ondo. Megafonia ez dabil ondo, berogailuak zarata ateratzen du, argi sistemak ere akatsak ditu..., beraz, badago zer konpondua. Kanpoko hormak txukundu besterik ez dira egingo diputazioak ez digu uzten eta gauza gehiago egiten. Barruko aldean, barriz, badakigu zer egin behar den baina ez dakigu nola, horretarako lan talde bat osatu da hainbat herritarrekin, zer egin eta parrokiari barrutik nolako itxura eman erabakitzeko.

Jarraipenik izango da

M. J. Aretxagak urtarrileko alean zera esaten zuen "eskerrak borondatezko lanetan aritzeko norbait badagoen oraindik" eta galdera bat botatzen zuen: milurte berri honetan gure elkarteek jarraituko dute?

Guri dena kontrolatzea gustatzen zaigu, horregatik entzuten dugu:

- Semea futboleko badabil fenomeno! (hogei urterarte hor balebil) Baina gero UDAn sartzeko ez dago jenderik.

- Herrian nork bozkatzeko duen kontrolatu beharra dago.

Baina listak osatzeko problemak eiz daude.

- Norbait banantzen baldin bada, bikoteak baino hobeto dakigu, noiz, nola, zergatik...

Baina nik Leixargarate aterpetzeko ardura dudanetik, makina bat jende ezagutu dut borondatezko lanetan.

Murruxion gazteak, gaztetxearen alde ere ikusi nituen gazte pilo bat lan egiteko gogoz, Loramendin ere gehienak gazteak, udaletxean..., beraz, badago borondatez lan egiten duen jendea, eta gehienak, ez denak, gazteak.

Gazte askok eskaini didate beren laguntza Leixargaraterako, badakik, egunen batean zerbait egin behar bada, egurra zatitu behar duzunean deitu... eta lau milioitik gora balio duten makina bat Todo terreno egongo dela herrian, baina Land Rover zahar bat duen eta hogeitaz azpiko gazte batek eskaini eta eman dit bere laguntza nahi dudanean gauzak igo edo jaisteko. Eta gazte denak, eta nagusi batzuk, etortzen dira leku eta orduan giltzak hartzera, izena ematera, giltzak entregatzera...

Maiz esan ohi dugu gazteengatik kristonak eta bi, gu bezalako jarrerak ez dituztelako eta euren kontrola hartu ezin dugulako baina samurrena, denak zaku batean sartzea da, norberak 200.000 pta irabazi, etxeko sofa gainean potro aleak ondo astindu eta besteek egin ditzatela eginbeharrak.

Esaera zahar batek dioen moduan: ederra dastatzeko, itsusia zer den ere jakin behar da.

Imanol ETXABE



Haizea taberna



Gustoko giroa

Mitarte, z/g
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64

IBARRA ESTANKOIA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77



Makai Aretxabaletako lorategi eta berdegune guztien ardura du

Makai lorategiak zaintzen

Udaberria martxoan hasten bada ere, apirilko euri jasek eta maiatza hasierako eguzkiaren epeltasunak lagunduta zuhaitz eta landara gehienak maiatzean loratzen dira. Beraz, loraila loreen hila ei da. Petuniek, begoniek, alegriek eta beste hainbat lorek begi bista alaitzen digute hilabete horretan. Begien gozagarri izateko ordea, gogor lan egin beharra dute batzuk herriko lorategiak zaintzen.

Makai kooperatiba 1987. urtean sortu zuten bost lagunek. Gaur egun lau bazkide dira, ordukoak bi bakarrik, eta zortzi langile. Zortzi hauetatik, ordea, Aretxabaletako lorategiak zaintzen hiru bakarrik ikusiko ditugu Manolo Hernandez, Ana Bengoa eta Jose Rodriguez hain zuzen. Hirukote horrek dauka herriko lorategi guztiak txukun egotearen ardura. Baita dotore asko egon ere.

Enplegua sustatzeko antolatutako lorazain ikastaro bat egin ondoren lau lagun eta irakaslea enpresa sortzera animatu ziren. Geroztik hamairu urte pasatu dira eta orduko batzuk egon ez arren Makai kooperatibak lanean jarraitzen du. Gaur egun lau bazkide eta bazkide laguntzaile batek osatzen dute enpresa, langileak, barriz, zortzi dira.

Aretxabaletako udalarentzat lanean

Aspaldi hasi ziren Aretxabaletako udalarentzat lanean, lehenengo kontratu bidez eta azkenengo urteetan subasta bidez. Azkenengo subastan lau urterako lortu zuten kontratua eta datorren urteko irailean bukatu arren beste bi urteko luzapena daukate. Kontratua araberako Aretxabaletako lorategiak hiru lagun artean zaindu behar dituzte eta hortantxe ibiltzen dira Manolo, Ana eta Jose.

Portasoletik hasi eta Otalora kale bukaeraraino

dauden lorategi eta berdegune guztietaz arduratzen da hirukote hori. Azken urteetan, ordea, herria hazitua da eta gero eta lan gehiago daukate "Lehen hiruron artean ondo moldatzen ginen baina gero eta lorategi gehiago dago eta azken aldian denera heltzeko larri gabilta. Udalarekin dugun hitzarmena begiratu eta aldatu beharra dagoela uste dut" dio Manolo Hernandez Aretxabaletako arduradunak. Etxebizitzak direla eta, egiten den obra berri bakoitzeko %10 aurreikusiten da lorazaintzarako. Kiroletxe parean dagoen lur sailean esaterako, beste proiekturik egin ezean, be-

darra landatuko da, 7000 m² dira eta horrek ere emango die lana.

Gainontzeko bost langileak kanpoko herrietara joaten dira Eskoriatza, Gasteiz, Bilbo... "Kanpoan gehienbat partikularrentzat lan egiten dugu, enpresak izan ei dira. Bilbon esaterako "Hotel Indautxu"ko lorategien ardura daukagu". Momentu honetan guztira 40 bat lorategiren mantenuaz arduratzen dira Makaiko kideak.

Urtaroen araberako lana

Urtaroaren arabera, lan egiteko era guztiz ezberdina da. Martxotik irailera bitartean lan asko izaten

dute, hala ere lan egiteko urtarorik egokiena ere udaberria dela diote "neguan hotz pasatu behar izaten dugu eta udan bero, beraz kanpoan lan egiteko garai egokiena udaberria da". Neguaren ostean udako landarak jartzen dituzte begoniak, salbiak, petuniak... Urtaro horretan bedarra ere oso samur hazten da, beraz, sarri-sarri moztu behar da lorategia dotore egon dadin. Udazken-neguan, barriz, zuhaitzen inausketa izaten da lanik garrantzitsuena.

Lorategiak dotore mantentzeaz gain, lorategi berrien diseinua ere eurak egiten dute. "Belorrietako lorategi berrietan zerbait ezberdina egin gura genuen, eta lehenengoan dagoen irudiak esate baterako, iparrorratza adierazten du" dio Ana Bengoak.

Lanean Portasol ingururik hasten dira eta poliki-poliki beherantz joan Santutxuraino. Ondoren buelta behetik gora. Hala ere,

"Lehen hiruron artean ondo moldatzen ginen baina gero eta lorategi gehiago dago eta azken aldian denera heltzeko larri gabilta"



gehien zaintzen den zonaldea herri erdia da: Erreka-barren, Belorrieta eta Andra Mariko lorategiak. Jen-deak gutxien errespetatzen dituenak ere horiexek dira, hain zuzen.

Ureztatze sistemaren egokitzapena

Momentu honetan lorategiak ureztatzeko modurik egokiena ureztatze automatikoaren bidez da. Lorategian ura pasatzeko hodiak sartzen dira eta hiru lau puntutan, lorategiaren tamainaren arabera, ihinztagailuetatik ura kanpora ateratzen da. Sistema horrekin ur asko aurrezteaz gain, lorategia hobeto ureztatuta geratzen da, ura poliki-poliki sartzen doalako lurtean. Araba Ibilbideko lorategi guztietan jarrita dago eta orain Andra Marikoan eta Belorrietako berrietan jarriko dira.



Apurketak eta txakur kakak

Atxabaltarrok oso gutxi zaintzen ditugu lorategi eta orokorrean denonak diren tokiak. Ia aste bukaera guztietan agertzen da landara edo zuhaitzen bat apurtuta. "Jai bixamonak ikustekoak izaten dira, batez ere herriko erdigunean, zuhaitzak apurtuta, landarak sustarretik atarata... Denonak diren gauzekiko errespetu falta itzela dago". Mitarte kalean, esate baterako, hiru zuhaitz txiki landatu zituzten, hilabete eta erdian hiru aldiz atara eta bota egin ditu norbait. Zaharren egoitza aurrean, barriz, zuhaitz bat zerra txiki batez moztu zuten. Adibide batzuk besterik ez dira, aste bukaera guztietan errepikatzen diren adibideak.


**“Jai bixamonak ikustekoak izaten
dira, batez ere herriko erdigunean,
zuhaitzak apurtuta, landarak
sustarretik atarata...”**

Txakur kakekin ere go-gaituta dabilta. Lorategia txukun eta dotore uzten saiatu eta buelta eman orduko txakur kakez bete-ta. Makina txikiarekin bedarra moztetakoan, gainera, kontuz ibili behar izaten dira txakur kaka parean tokatuz gero, erropa eta aurpegia kakaztuta geratzen zaizkielako. Udalak orain hilabete batzuk txakur kaken inguruko bandoa atera zuen eta udaletxean txakurren kakak jasoteko poltsak ematen dira. Ez da ordea, jende gehiegi hurbildu poltsa horien bila. “Tokatu izan zaigu lorategian lanean ibili eta txakurrak gure aurrean kaka egitea. Ez pentsa horregatik jabea larrituko denik, ezta lotsatu ere” dio Manolok.

Istripuak

Beste edozein lanetan letxe hemen ere badago istripuak izateko arriskua. Hamairu urtetan, ordea, ez ei dute istripu bat ere izan eta orain, hilabete eta erdian bi. Larriena Txemak izan zuen, hondeamakina txiki baten pala erori baizitzaion hanka gainera. Hankako hainbat hezur apurtu zitzaizkion eta denbora beharko du erabat ondo sendatzeko.

Zuhaitz asko ei ditu gure herriak. Hala agertu omen zen ikerketa batean. Berdeguneei dagokionez, bestalde, ez daukagu parke haundirik, haundiena Kurtzebarri eskola alboan, trenbidean, dagoena izango da. Lorategi txikiz osatutako herrian bizi gara, txukun eta dotore mantentzen saiatzen diren lorategiak. Txukun eta dotore mantentzea, ordea, ez da Makaioken lana bakarrik denon lana baizik.



Txirrindularitza

Jon Lete laugarren Bergaran egin zen txirrindulari proban. Joan den maiatzaren 6an, infantilek Bergaran korritu zuten txirrindulari lasterketan, laugarren izan genuen Jon Lete, Dorletako Ama txirrindulari taldekoa. Denboraldi txukuna egiten ari da mendiolarra. Lasterketa guztietan aurreneko posuetan amaitzen du eta Bergaran ere horrela erakutsi zuen. Hurrengoan erlojuz aurkako proba izango dute Tolosan.



Squash

Squash eta esku pilotan apuntatzeko epea bihar bukatuko da. Kiroletxeak antolatu duen esku pilota eta squash txapelketetan izena emateko epea eguakotx honetan, hilaren 12an, amaituko da. Orain artean, esku pilotan sei bikote apuntatu dira eta squashean, barriz, bost partaide. Dena dela, oraindik jende gehiagok izena emango duela espero da. Bi txapelketok hilaren 20an hasiko dira.



Futbola

Udako kadeteek Ohorezko kadete ligara igo dute. Denboraldi bikaina egin du Santi Moralesek entrenatzen duen kadeteen taldeak, eta ondorioz, taldea Ohorezko kadete mailan arituko da datorren denboraldian. Azkenengo partiduan 3-2 nagusitu ziren Añorgaren aurka eta garaipen horren ondoren, laugarren postua eskuratu zuten sailkapen orokorrean. Postu horrek gora igotzeko aukera eman die, lehen lau taldeak igo baitira mailaz.



Mendia

Mendi martxa antolatuko da ekainerako. Ekainaren 11rako mendi martxa antolatu dute herriko martxa zale batzuek Murruxiko mendi elkartearekin batera. Sei-zortzi ordu bitarteko ibilaldia izango da eta parte-hartzaileek herritik hasi eta Oro, Larrino, Urrexola, Degurixa, Leixargarate eta Kurtzebarritik pasa ondoren, herrian bertan amaituko dute martxa. Guztira 28 km izango ditu lehen martxa horrek.

Bidaiatzeko eta lekuak ezagutzeko bizikleta lagun bilakatu du Maite Ortiz de Zaratek. Orain hiru urte hasi zen guztia, Mireia Uribeberria eta biak Dinamarkara bizikletan ibiltzera joan zirenean. Orduetik bi erruerako tramankuluan hainbat ibilbide egin dituzte.

■ **Bizikleta medio dela inguru mordo bat ezagutu dituzu dagoeneko. Kontaiguzu.**

■ Bai, batzuk bai. Lehenengo esperientzia Dinamarkakoa izan zen. Mireia Uribeberria eta biok joan ginen eta Dinamarka bizikletan gurutzatu genuen. Ia egunero egiten genuen ibilalditxo bat bizikletan. Oso esperientzia polita izan zen hasteko.

■ **Eta orduetik zenbat ibilbide bizikletan?**

■ Hurrengo Cabo de Gata egin genuen Almerian. Gero Frantzia Loiraren jaitsiera eta Britaina ere ezagutu genuen. Aurtengo Aste Santuan Via de la Plata ibilbidea egin dugu. Guztiak

ere taldean egin ditugu Dinamarkan ezagututako lagun batzuekin.

■ **Zer moduzkoa izan da azkenengo esperientzia hau?**

■ Gogorra izan da. Meridatik Astorgara arteko tarte egin dugu bizikletan, 500 km inguru. Eguraldiak ez digu batere lagundu eta horrek asko gogortu du bidaia. Hotz haundia pasatu dugu eta ia egunero euria egin digu. Baina, hala ere, pozik, merezi izan du.

■ **Azkenean ez da bizikletaz kokoteraino bukatzen?**

■ Batzuetan bai. Bizikleta leku guztietan aldean izaten da, eta azkeneko kokoteraino bukatzea ere normala da.

■ **Zelako ekipoa behar da horrelako irteerak egiteko?**

■ Nik bizikleta mixta deritzon horietakoa daukat, ez

da mendirako baina paseokoa baino gogorragoa da. Alforjak eramateko bizikleta dexente samarra izan behar da. Horrez gain, kulo-teak eta kaskoa behar dira.

■ **Dohain berezirik behar da horrela bizikletan ibiltzeko?**

■ Ez, sekula ez naiz izan bizikletan ibiltzen den horietakoa. Esan dudan moduan, orain hiru urte hasi ginen. Guzti horren mamia hasiera-hasieratik poliki-poliki hastean datza. Eta jakina, beti norbere erritmoan joan behar da. Ibiliaz teknika ere hobetzen joaten da. Geure buruari erronkak jartzen dizkiogu eta hauek betetzea satisfakzio haundia da.

■ **Eta noiz entrenatzen duzu?**

■ Neguan ez naiz asko ibiltzen, hotzarekin ez baitu batere atsegin bizikleta

hartzea. Aste Santu aurretik hasten naiz normalean. Astebukaera batzuetan iparraldera joaten gara lagunok, bestela, hemen inguruan ibiltzen gara, Araba aldean, bailaran bertan...

■ **Hurrengo zein proiektu buruan?**

■ Oraindik batere ez. Lehenago edo beranduago, hala ere, irtengo da zeozer.

Maite Ortiz de Zarate

"Via de la plata" bizikletan



Manu Hurtado izan zen Otala zelaiko krosean garaile

Manu Hurtado beasaindarra izan genuen joan den domekan egin zen Otala zelaiko kroseko irabazlea. Hurtadok 43'26"36 segundu behar izan zituen urtegiari bi buelta emateko. Irabazlearekin batera David Alonso donostiarra helmugaratu zen. Hirugarrena, barriz, Ramon Jausoro izan zen, 44'04"58 segunduko denbora eginez. Azken honek berriz heldu dio bere ohiko

afizioari eta domekan txukun aritu zen gainera. Aurtengo edizioak 70 parte hartzaile batu zituen. Hori-tatik seniorrek eta beteranoek osatu zuten kopururik haundiena, gero emakume-ek eta juniorren kopurua, barriz, oso txikia izan zen, lau korrikalari besterik ez baitziren izan. Lasterketan hamairu atxalbatar aritu ziren, gehienak senior eta beteranoak.



Manu Hurtado, irabazlea, erdian eta senior mailako sarituak



Kategoria guztietako lehen atxabaltarrak

SAILKAPENA:

Senior

1.- Manu Hurtado	43'26"36	Beasain
2.- David Alonso	43'26"68	Donostia
3.- Ramon Jausoro	44'04"58	Aretxabaleta
Lehen atxabaltarra		
Ramon Jausoro	44'04"58	

Emakumezkoak

1.- Eli Martinez	24'19"92	Legazpia
2.- Alaitz Etxeberria	24'58"19	Azpeitia
3.- Onintza Zeberio	25'32"38	Azpeitia
Lehen atxabaltarra		
Kattalin Antxia	39'59"81	

Beteranoak

1.- Patxi Sanchez	21'53"25	Zarautz
2.- Juan Mari Gonzalez	22'28"62	Donostia
3.- Alfonso Luelmo	22'46"74	Aretxabaleta
Lehen atxabaltarra		
Alfonso Luelmo	22'46"74	

Junior

1.- Aitor Delgado	24'33"58	Elorrio
2.- Gaizka Arratibel	26'01"93	Legorreta
3.- Iban Chave	26'03"80	Legorreta
Lehen atxabaltarra		
Oinatz Agirre	36'57"39	



DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44

Seme-alabengandik gertu egon nahi izateak, Mariasun loteria denda ipintzera bultzatu zuen. Hala ere, Fagorreko lana ez zuen utzi eta egun bertan jarraitzen du, loteria saltzeari ere bere tartetxoa eskainiz. Lanetik kanpo dantza egitea eta bidaiatzea atsegin ditu arrasa-tear honek.

Mariasun Ziardegi

"Ez zait sekula loteria tokatu"



- Zergatik jarri zenuen Iber loteria denda?
- Herrian ez zegoen loteria saltzen zen lekurik eta jendeak kanpoan erosi behar izaten zuen, horregatik jartzea erabaki nuen.
- Araudi gogorra jarraitu behar da horrelako komertzio bat jartzeko?
- Bai, nahiko gogorra. Urteak pasatzen dira estatuak bai-mena eman aurretik. Francon denboran, akordatzen naiz, militarrek edo hauen alargunak bakarrik jar zezaketela horrelako dendarik.
- Nondik dator Iber izena?
- Seme-alaben izenetatik. Ibai eta Ergiña.
- Zenbat aritzen zarete dendan?
- Hiru normalean.
- Loteria asko erosten dugu atxabaltarrok?
- Nik uste dut baietz, leku askotan erosten delako.
- Zenbatekoa da zurean tokatu den kopururik haundiena?
- Orain bost bat urte dezimoko 100.000 pta tokatu zen.
- Zuri tokatu zaizu sekula?
- Ez.
- Lana utziko zenuke 500 milioi tokatuz gero?

- Bai, utziko nuke.
- Zer egingo zenuke orduan?
- Besteak beste seme-alabei etxea erosi eta bidaiatu.
- Bidaiatu nora?
- Egiptora bueltatuko nintzateke, enkantu berezia dauka eta.
- Denbora librean zer egiten duzu?
- Etxeko lanak.
- Afiziorik.
- Dantza egitea, irakurtzea, astrologia...
- Zer motako dantzak?
- Dantza karibearrak, astean behin klaseetara joaten naiz.
- Lo egiteko sekreturik.
- Gauza onetan eta lasaietan pentsatu.
- Zelakoa da zure izakera?
- Lasaia eta zabala naiz.
- Tradizionala ala moderna zaitugu?
- Biak. Familia, ohitura... tradizionala, baina horrek ez du kentzen beste gauza batzuetan moderna izatea.
- Lorarik bai etxeko balkoian?
- Bai, geranio gorri-gorriak. Lorak asko atsegin ditut.

Martín

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

ARRITZEKO S.L.

Etxebizitzak
salgai Durana
kalean

Fueros, 26 5 of. 1
Tel.: 945 23 04 08
01005 VITORIA/GASTEIZ

San Migel erretegia

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

Lauxitta

TABERNA

Pintxoak eta
otartekoak



ORDUTEGIA:
Goizeko 10etatik
gauko 10etara

Zatoz
Lauxittara!

Lauxitta kalea, 4 20550
ARETXABALETA ☎ 943 79 29 36


Mafecco
Choni Quinto



Trajeak, berokiak,
soinekoak, gonak
eta alkondarak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagarritik



Jai giroan

Felix eta Alberto Iñurra-tegi gaur bertan iritsiko ei dira etxera. Manasluk baietz esan zien eta saiatu eta lortu zuten, Anna-purnak, barriz, ezetz. Beste behin ere zuhurtasunez jokatu dute bi anaiek, eta horrela izan behar du, gainera. Felixeri behin eta berriz entzun nion telebistan, egunero argitzen du eta mendia hor egongo da beti.

Jarraian komunikabideen arloari helduko diogu eta urrun joan barik Atxabalta telebistari. Dagoeneko jakingo duzue gure herriko telebistak agur esan digula betirako. Laster Goiena bailarako telebista izango dugu gure artean eta bertan arituko dira **Amagoia Lasagabaster** eta **Haritz Altube** aurrerantzean. Bailara guztian emitituko da eta irrikitan nago Aretxabaletako komunikabidean lankideak izan direnak bailarako komunikabidean ikusteko.


Beraz, goian aipatu dudanez, Atxabalta telebistak agur esan digu eta **Mikel Uribetxebarria** orain arte zuzendari lanetan aritu denak ere halaxe egin du. Mikelek fin bete du bere lana eta orain erreleboa koadrilakoa den **Edorta Mendietari** utzi dio. Edorta Aretxagazeta-

ren kargu gelditu da. Espero dut zuzendari berria nirekin oso gogorra ez izatea, eta gure dudana idazten utziko didala.

Agurrak agur, hilabeteak azkar agurtzen ditugu berriei ongiatorria emateko. Udaberriko hilabete hauek jai ugari dakartzate aldean. Bi aste barru, **Euskararen eguna** eta **Otala zelai eguna** ospatuko ditugu. Zapatuan euskarak lekukoa hartuko du eta domekan bixamona pasatzeko Otala zelaiko erromeria aproposa izango da.

Hauen ondoren etorriko da bestelako ospakizunik, **Mururen 50. urteurrena**, esaterako. Ekainaren 4an izango da eta **Zaraia** mendialdea burubelarri dabil urteurren horretarako ekitaldia gertatzen. Muruko historia kontatzen duen liburua argitaratuko da, eta anekdotak eta argazkiak ere jasoko ditu. **Aitor Antxia** eta **Jose Ramon Intxauspe** fin ari dira 40 orrialde inguru izango dituen liburu hau egiten. Egunean bertan, barrez, omenaldia jasoko dute hiru lagunek baina horiek nortzuk diren hurrengoan esango dut, bestela, larregi aurreratzea izango da eta.

M. J. Arretxe



Nire kuleroak

Anjel Lertxundi
Marrazkilaria: Antton Olariaga
Elkarlanean, 1999.
(Maxe saila, 1)

Maxe 10 bat urteko neskatila da Lertxundik liburu honekin hasten duen sailaren protagonista. Argazki makina bat oparitu diote eta berak ateratako argazki batean bere aitona agertuko da eskutan bere kuleroak daramala. Maxek ez daki zer pentsatu bere osaba zoratu ote den edo...

Umorez betetako istorioa duzue honakoa, Lertxundiren estilo bizi eta Olariagaren marrazki ederrekin. Elkarlanean eginiko liburua dela esan daiteke, kolorezko ilustrazioak testuarekin oso ongi loturik doazelako. Liburu gomendagarria da 10 urtetik aurrera irakurtzeko modukoa. Istorioaren amaieran Maxeren beste argazki batzuk ere agertzen dira Lertxundiren komentarioa, baina aurreko istoriarekin zer ikusirik ez dutenak.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Gaurkoan gure ahotan barra-barra dabilen esaldia ekarri dugu euskara zuzentzen atalera.

Adibidea honako hau da:

Txarto:

- Ama, Mikel botaka hasi da.
- Ba, ~~hartzeko~~ mantzanillie eta ~~egoteko~~ ohien bero-berotan.

Zuzen:

- Ama, Mikel botaka hasi da.
- Ba, hartu daixela mantzanillie eta egon daixela ohien bero-berotan.



Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai. Tel.:
666957983.

Ziklomotor zahar baten
fitxa teknikoa beharko
nuke. Tel.: 943 77 08 02.
(Joxean).

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Kotxea salgai Renault 21
TXE. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Boxer eta pastor aleman
arrazako txakurkumeak
salgai. Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik
negozioaz ezin garelako
arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Peugeot 806a salgai. 7
plazatakoa. 2.0 gasolina.
Tel.: 607 15 30 70.

Ford Mondeo V 6 salgai.
Eguzki-sabaia, aleroiak
eta bajuak ditu. 2 urte,
72.000 km.
Tel.: 609576394.

Etxebizitza

57 m²ko garajea salgai
edo alokagai Errekaba-
rren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da
Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Logela bat alokatzen da,
pisu konpartitu batean
Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

Etxe bat alokatuko genu-
ke Aretxabaletan edo
Arrasaten.
Tel.: 646699843.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Garaje bat salgai Otalora
kalean, 11. zenbakian.
Tel.: 943 79 04 95.

Pertsona batek Aretxaba-
letan pisu bat konparti-
tzeko beste pertsona bat
behar du. Egunez deitu:
943 74 80 00 telefonora
eta gauzez 943 77 18 72
telefonora.

**ERREKABARREN
MERKATAL ZENTRUA**

• JUANTXO URDAITEGIA	943 79 75 42
• MARI KARMEN OINETAKO DENDA	943 79 59 85
• IRUDI ILEAPAINDEGIA	943 79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	943 79 31 59
• LEINTZ-ROSI	943 79 78 63
• ERREKABARREN FRUITATEGIA	943 79 96 43

Lana

Mutil bat behar dugu Ford Transit furgoneta gidatzeko. Tel.: 943 79 83 04.

Uztailerako begiraleak behar dira udaleku irekietan lan egiteko.

Curriculumak Loramendi euskara elkartearen kultur etxean edo eta ludotekan entregatu behar dira. Baldintza: 16 urtetik gorakoa izatea eta euskara jakitea.

Astebukaerretarako zerbitzaria behar da Mendiola jatetxerako.

Tel.: 943 71 43 45.

Taberna lanerako eta garbiketarako pertsona bat behar da.

Tel.: 945 44 50 86.

Lan deialdi publikoak

Aretxabaletako Udala. Kontuhartzaitzako teknikaria. Enpresa zientzietako diplomatura.

Lanpostu finkoa.

Oinarriak: EAOn argitaratzeko zain.

Durangoko Udala.

Igeriketarako monitorea soroslea. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean. Oinarriak: BAOn 99/12/27.

Gasteizko Udala.


Hizkuntza musikaleko hiru irakasle. Tronpetak irakaslea eta piano irakaslea. Epea: 00/5/16.

Oinarriak: AAO 00/4/26.

Nafarroako Foru Komunitatea. Suhiltzaileak 40 lanpostu.

Epea: 00/5/27.

Oinarriak: NAOOn 00/4/26.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PROGRAMATZAILEA. Vitoria/Gasteiz.
Erref.: 31728/5

IGELTZEROA. Arabako lautada.
Erref.: 31388/3

BI PROMOTORA. Arabako lautada.
Erref.: 31217/3

ELEKTRIZISTA. Arabako lautada.
Erref.: 30646/2

OKINA, IKASTUNA. Gasteiz.
Erref.: 31350-6

TEKNIKO KOMERTZIALA. Gipuzkoa.
Erref.: 32527-2

AUTO MEKANIKOA. Beasain.
Erref.: 30785-3

AJUSTATZAILEA. Durango.
Erref.: 31448-4

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tel.: 943 79 04 39

BAZTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETAKO

AZKARATE ARROZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19

ARETXABALETAKO
943 77 01 24

ELIKADURA BEREZIA

T
X
I
L
A
R
R
A



Durana, 35
Tel.: 943 79 10 15

Loramendi, 9
Tel.: 943 79 44 28
ARETXABALETAKO

MAIATZA**12 EGUAKOTXA****■ HELDUENTZAKO****IPIUIN KONTAKETA**

Koldo Amestoik helduentzako ipuin kontaketa bat egingo du. Gaueko 10:30ean udalaxe zaharrean.

16-26**■ ERAKUSKETA**

Misioetako bizitza ezagutzeko erakusketa egongo da Pagaldai-xenekok lokalean. Orduetgia: astelehenetik eguakotxera 18:00etatik 20:00etara. Zapatuan 11:30-13:30/18:30-20:30. Domekan 11:30etatik 14:30etara.

19 EGUAKOTXA**■ ALMENEKO IKASLEEN DESFILEA**

Almeneko goi batxilergoko ikasleek desfilea egingo dute Arrasateko Amaia antzokian arratsaldeko 6:30ean hasita. Sarrera: 500 pta.

20 ZAPATUA**■ EUSKARAREN****EGUNA****21 DOMEKA****■ OTALA ZELAI****EGUNA****■ DEBA ERREKAKO****UREN AZTERKETA**

Deba errekaen iturburutik Leintz Gatzagaren arteko uren azterketa egingo da. Goizeko 9etan izango da irteera herriko plazatik eta bazkaltzeko etxera bueltatuko da.

■ MENDI IRTEERA

Zaraia mendi taldeak Illarazu-Pueblo de Arano ibilbidea egingo du.

22 ASTELEHENA**■ HITZALDIA**

Jose Mari Satrustegik Euskal Herriko pertsonaia mitologikoak hitzaldia eskainiko du. Arratsaldeko 7:00etan udaletxe zaharrean.

24 EGUAZTENA**■ HITZALDIA**

Osasun Pastoraltzak antolatuta Aita Jose Agustin Elustondok Gaixotasunetik sinisteari buruz berba egingo du. Arratsaldeko 6etan Basotxon.

25 EGUENA**■ HITZALDIA**

Osasun Pastoraltzak antolatuta Mirari Kortak Hil zorian daudenei eta familiakoei nola lagundu esango du. Arratsaldeko 6etan Basotxon.

26 EGUAKOTXA**■ HITZALDIA**

Osasun Pastoraltzak antolatuta Mari Hercek Kristau bokazioz gaixoe-kin lan egiteari buruz berba egingo du. Arratsaldeko 6etan Basotxon.

IKASTAROAK**■ UMEEN****MASAJEARI BURUZKO IKASTAROA**


Mugi, ziklotrizitate, presentzioa eta laguntza zentroak haurrentzako masaje ikastaroa antolatu du. Tokia: Araba Etorbidea, 3, Arrasate. Egunak: Maiatzak 13, 20, 27 eta ekainak 3, 10, 17. Orduetgia: 10:30etatik 12etara. Informazioa: 943 77 08 05.

■ AUTODEFENTSA**IKASTAROA****EMAKUMEENTZAT**

Arrasateko emakume sailak autoestima eta autodefentsarako ikastaroa antolatu du. Autoestima eta autodefentsa psikiko eta fisikorako teknikak ezagutzera emango dira ikastaroan. Egunak: maiatzak 12 eta 13. Emalea: Maite Monroy. Tel.: 943 79 09 00 eta 943 79 41 39.

■ GAZTEAK ETA ARRAZAKERIA XI. ARGAZKI LEHIAKETA

Arrasateko Udalak eta ASA taldeak antolatutako ikastaroa. Aurkezteko epea: urriaren 11. Informazioa 943 77 00 65.

BALITAKUK (Hikaz berbetan)

Mikel Arriobe

Zorion agurrak



Garazi Berrizbeitia
5 urte
Maiatzak 5
Zorionak etxeko gaztetxoeneri. Etxekoak.



Mirari Altube
Maiatzak 7
Zorionak eta muxu pila bat zure lankideen eta kulturakoen partetik.



Ainara Etxenagusia
Maiatzak 9
Zorionak eta musu handi bat Nahia eta Anen partez.



Gorka Madinabeitia
Maiatzak 10
Zorionak eta urte askotarako Koadrilakoak!



Naiara Urrutia
Maiatzak 10
Zorionak eta musu haundi bat familiakoen partez.



Laura Aldalur
Maiatzak 11
Aupa neska eta zorionak! Zure koadrilakoak.



Mireia Axpe
Maiatzak 11
Zure koadrilakoak eta familiakoak en partetik zorionak.



Maite Gaztañaga
Maiatzak 13
Belarririk tirakada bat eta musu bat. Zure koadri-la.



Alazne Urzelai
Maiatzak 15
Akordatu garen ez, zorionak eta musu haundi bat. Lagunak.



Estitxu Ramos
Maiatzak 15
Zorionak hirugarren pisuko familiakoen partez.



Arrate Arkauz
Maiatzak 15
Aretxagazetako batzordekide guztien partetik zorionak.



Anabel eta Javi
Maiatzak 13
13a beti izan da espeziala zuentzat, eta oraingoa batez ere. Zorionak. Lagunak.

Txistuak • Txaloak

Herri honetan ez da samurra ideia politiko desberdinetako jendea elkarlanean ikustea. Plataformak, barriz, hori lortu duela esan dezakegu, izan ere, jende anitza batu du mezu bakar batekin: euskal presoen eskubideak eta euren Euskalerriratzea.

Nire txaloa, plataformakoak ahaztu barik beste talde bati eskaini gura nioke, Pasko domekan alderdikeria barik Aberri eguna ospatu eta antolatu zutenei. Egun hau, euskaldun sentitzen garen guztion eguna izan zen eta aurrerantzean ere horrela izango da.



Jaiotakoak

■ **Ane Izquierdo Fabian**
Apirilaren 16an.

■ **Ander Gonzalez Inda**
Apirilaren 20an.

■ **Elene Errasti Arriola**
Apirilaren 20an.

■ **Nagore Cebrino Arkauz**
Apirilaren 24an.

■ **Elene Carrillo Etxabe**
Apirilaren 26an.

■ **Jokin Isasisasmendi Esteban**
Maiatzaren 5ean.

■ **Danel Luengo Barrutia**
Maiatzaren 7an.

Hildakoak

■ **Francisco Intxauspe Perez**
Apirilaren 24an / 70 urte.

■ **Ramona Hidalgo Gomez**
Apirilaren 27an / 94 urte.

■ **Jose Vazquez Alonso**
Maiatzaren 5ean / 79 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.L.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



B

Bedarretaren inaugurazioa

Bedarreta futbol zelaiko inaugurazio ekitaldia daukagu goiko erretratuan.

UDak bere sorreratik, 1947ko apiriletik, futbol-zelaia eukitzeko ilusio haundia zeukan. Horrela, futbol-zelaia egiteko lehenengo ahaleginak Ibarrran bertan izan ziren, baina prezioa larregikoa zen. Horren ondorioz, azkenean Bedarretako lurretan egitea erabaki zen futbol-zelaia.

Zortzi hilabete behar izan zituzten lanak amaitzeko. San Mames futbol-zelaiko zaintzailea, Luis Viteri, arduratu zen zelaiaz. Azkenean, 1950eko abuztuaren 27an inauguratu zuten. Egun horretan Bilboko Athleticcek eta Eibarko ekipoak jokatu zuten. Ohorezko satea argazkian dagoen **Maria Bergaretzek** egin zuen, Ramon Arrueren emazteak, eta gaur

egun Udaleko PPko zinegotzia den Rosa Maria Arrueren amak. Egun horretan Eibarko musika banda izan zen giroa alaitzen. Bazkaria, berriz, Arrueneko txaletean izan zen.

Argazkian: **Tomas Txintxurreta** (monagiloa), **Don Miguel abarea**, **Don Angel abarea** eta **Maria Bergaretxe**.

Argazkia: Tomas Txintxurreta



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Erakusketa aldaketagatik...



- Logelak
- Egongelak
- Sofak

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

a eme Interiores
Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE

...%20tik %50era bitarteko deskontuak



a eme interiores

Garibai 9. Tel.: 943 79 15 03



ALDIBI AUTOAK, S.A.



Grupo
Nortekar



Nissan Almera berria Ibilbideaz goza ezazu



Zigorrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 01
Fax: 943 79 65 65
e-mail: aldibi@euskalnet.net

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Fax: 943 75 25 24
e-mail: aldibelgoibar@euskalnet.net